

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Gaubeako udal sektore publikoaren 2019ko aurrekontuari

Udalbatzak, 2018ko abenduaren 21ean balio osoz egindako aparteko osoko bilkuran, erakunde honen 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean jarriko da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat emango da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Gaubea, 2018ko abenduaren 27a

Alkate lehendakaria

JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI